

Vitoria-Gasteizko gurasoekin euskararen transmisioaz eginiko ikerketa kualitatiboaren ondorio txostena

Aritza Escandon

Kultur Kabia Zerbitzuak S.L.

aritz@topagunea.org

Laburpena. Ondoren irakurriko duzuen lanak Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzuak Kultur Kabia-ri eginiko enkarguan du abiapuntua. Gasteizko 0 eta 6 urte bitarteko haurren gurasoen artean euskararen transmisioak eta euskaraz sozializatzeko duten garrantziaz jabetzeko egitasmoa garatu nahi izan genuen lehenengo, gurasoei eurei bide-orri bat emateko ondoren. Izan ere, ez genuen susmo, aurreiritzi edo geure ustetik abiatu nahi izan, ez. Gurasoak epizentroan nahi genituen eta horretarako metodologia kualitatiboari helduta, zenbait eztabaida talde eta sakoneko elkarrizketa egin genituen Gasteizko tipologia askoko gurasoen artean, guraso multzo bakoitzari baliagarri egin dakizkiokeen ondorio, testigantza edo aholkuak emate aldera. Ondorengo lerroetan jasota dagoena egitasmoaren lehenengo parte baina ez dago, ikerketaren parte, alegia. • **Hitz gakoak:** *Sozializazioa, transmisioa, gurasoak, autopertzepzioa, autopresioa, Gasteiz, haurrak.*

Abstract. The study that is described in this report was commissioned from Kultur Kabia by the Gasteiz City Council. The purpose was to begin by developing a programme to gauge the importance of Basque language transmission and socialization in Basque among parents of children aged between 0 and 6 in Gasteiz, and subsequently to provide these parents with a roadmap. Rather than set out from our own assumptions, beliefs and prejudices, we decided to centre everything around the parents, so using a qualitative method we set up discussion groups and carried out in-depth interviews with parents showing a variety of different profiles in Gasteiz so as to provide conclusions, experiences and tips that would be useful for every kind of parent. This article discusses the first part of the programme, the research phase. • **Key words:** *Socialization, transmission, parents, self-perception, self-pressure, Gasteiz, children.*

**Egitasmo honen
helburu nagusia
da “Gasteizko
gurasoak
euskararen
transmisioan
duten garrantziaz
jabetzea eta
Udalak arlo
horretan egiten
duen lana
ezagutaraztea”.**

1. SARRERA

a) Aurrekariak

Kultur Kabiak bere zortzi urteko ibilbidean euskararen transmisioaren alorrean lan batzuk egin izan ditu, gehien bat Bizkaian; komunikazio kanpaina gisa gizarteratu izan dira aipaturiko egitasmoak, izan ere lanaren azken emaitza baino ez dira izan, azpian baitaude ikerketaren benetako gakoak, gurasoei eurei zuzenean galdetuta edo behatuta. Horixe, hain zuzen, da txosten honen funtsa nagusia, metodologia kualitatiboaren bitartez gurasoengana hurbildu ahal izatea eta lehen esku-ko informazioa jasotzea. Horrela egin genuen Bizkaia 2010etik gaur egunera arte Bizkaiko euskara teknikariek garatu duten “EMAN GILTZA, ¡Háblale, escúchale!” izeneko kanpainan eta horrela egin nahi izan dugu proiektu honetan, ñabardurak ñabardura. Hortaz, esku-arte-
an duzuen txosten honek Vitoria-Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzuaren behar bati erantzun nahi izan dio; izan ere, ezin aipatu gabe utzi landa-lana gauzatzekoan GEU elkartearen laguntza izan dugula.

Joan gaitzen, bada, eginiko urratsak azaltzera.

b) Helburuen eta proiektuak dituen faseen azalpena

Egitasmo honen helburu nagusia da “Gasteizko gurasoak euskararen transmisioan duten garrantziaz jabetzea eta Udalak arlo horretan egiten duen lana ezagutaraztea”. Helburua lortzeko hainbat fase bete behar izan dugu prozesuan zehar.

Alde batetik, lehenengo fasea izan da gurasoei eurei protagonismoa ematea; horretarako, proiektu honen xede-taldeko¹ gurasoengana heldu behar izan dugu, unibertsoaren lagina osatuz. Lagina osatu dugu gurasoen aldetik informazioa jasotzeko dagokigun gaiaren inguruan. Hori dela eta, zientzia sozialeko alderdi kualitatiboa lehenetsi dugu.

Bigarren fasea izan da, hortaz, metodologia aukeratzea eta zehaztea. Gure kasuan metodologia kualitatiboaren alde egin dugu eta labor bada ere, komeni da azaltzea zertan dautzan aipaturiko teknika kualitatiboak. Esan behar dugu teknika kualitatiboak nagusiki bi paradigmaren arabera sailkatu daitezkeela, eta guk, gaiarekiko dugun hurbiltasunagatik, hermeneutika-paradigman kokaleku egokia² topatu dugu garatu dugun estrategia metodologikorako. Honako gako nagusiak zehaztu beharrean gaude hobeto ulertze aldera: onartu eta galbahea pasatu behar izan diogu gure subjektibotasunari; neurri batean ikergai-

tik kanpo ez gara egon, esperimintatu nahi izan dugu ikertu dugun hori; eta zientzia kualitatiboak eskaintzen digun bermea onartzen dugu, baita gure bizipen pertsonalek ematen diguten informazioa ere, gure eskarmentua tresna moduan erabili dugu.

Hau azalduta, metodologia kualitatiboari dagozkion bi teknikaz baliatu garelako azpimarratu behar dugu: sakoneko elkarrizketak eta eztabaida taldeak. Aurrerago sakonduko dugu apur bat teknika hauen nondik norakoetan. Izan ere, bigarren fasea amaitzeko laginaren nolakotasuna ere azaldu behar dugu. Gure kasuan ez gara oinarritu probabilitate hutsean, intentziosko laginketan baizik³; hots, behin irizpide batzuk⁴ zehaztuta, gure ustez egokienak aukeratu izan ditugu.

Hirugarren fasea teknikak implementatzea izan da gurasoei protagonismoa “*de facto*” emanez, eztabaida taldeak eta sakoneko elkarrizketak gauzatu ditugu, hortaz.

Laugarren fasean datuen analisiari ekin diogu, eskuartean duzuen txosten honetan ondorio nagusiak jasoz.

Azkenik, eta txosten honetan jasotakoa partekatu ondoren, Gasteizko Udalak transmisioaren inguruan egiten duen lana gizarteratzeko sasoia ailegatuko da.

2. METODOLOGIAREN AZALPENA

I

a) Eztabaida taldeak

Hiru eztabaida taldeak egin ditugu, gutxienez 5 kide eta gehienez 7 kide izan dituztelarik. Alde batetik, guraso biak euskaldunak diren bikotekideek osatutako talde bat, bi gurasoetako bat euskalduna den bikotekideek osatutako beste talde bat eta guraso erdaldunek osatutako hirugarrena. Guraso euskaldunekin euskaraz garatu dugu dinamika eta gainerako bietan gaztelania erabili dugu.

Hiru kasuetan gidoi bat erabili dugu, egitura antzeko samarra izan bada ere, ñabardura batzuk gehitu ditugu talde bakoitzaren nolakotasunak aintzat hartuta. Esan barik doa eztabaida-talde bakoitzak norabide desberdina hartu zuela eta hori aberastasun modura bizi izan dugula.

Hiru taldeetan bi dinamika erabili ditugu; alde batetik, galdera orokor batzuek eraikitako gidoi bat eta, bestetik, euskararen transmisioaren inguruko balizko lelo batzuk erakutsi dizkiegu, euren motibazioaren

Hiru eztabaida taldeak egin ditugu, gutxienez 5 kide eta gehienez 7 kide izan dituztelarik. Alde batetik, guraso biak euskaldunak diren bikotekideek osatutako talde bat, bi gurasoetako bat euskalduna den bikotekideek osatutako beste talde bat eta guraso erdaldunek osatutako hirugarrena.

***Bi sakoneko
elkarrizketak
egin genituen bi
guraso
etorkinekin; biak
ala biak
gaztelaniaz egin
genituen.***

arabera egokienak aukera zitzaten. Lelo bakoitzak mezu bat transmititzen du eta gure lan honetan osagarritzat jo dugu informazioa zeharka lortzeko. Aurrerago leloen aukeraketa eta emandako puntuazioa ikusiko dugu.

Guztira talde bakoitzaren iraupena 60 eta 75 minutu bitartekoa izan zen. Hirurak grabagailuz eta bideoz grabatu genituen parte-hartzaileei baimena eskatu eta gero.

Aipaturiko gidoiak eta leloak eranskin modura ere gehitu ditugu.

b) Sakoneko elkarrizketak

Bi sakoneko elkarrizketak egin genituen bi guraso etorkinekin; biak ala biak gaztelaniaz egin genituen. Kasu honetan gidoi berdina erabili genuen arren, oso bide desberdinetatik joan zirela esan behar dugu. Elkarrizketa batek ordubete inguru iraun zuen, besteak, ordea, 35 minutu.

Teknika honetan ere balizko lelo batzuk erakutsi genizkien.

3. TALDEEN EZAUGARRI OROKORRAK

I

a) Lagina

Lagina osatzeko lau multzotan sailkatu ditugu gurasoak:

1. Guraso euskaldunak sailkatzeko hiru multzotan ere egin dugu ama-hizkuntzaren arabera, guraso biek euskara ama-hizkuntza dutenak, bietako batek euskara-ama hizkuntza eta besteak ez, eta biek euskaraz ez den beste hizkuntza bat ama-hizkuntza modura dutenak.

Honako irizpideak ezarri genituen hasieran taldea osatzeko:

— Erdia baino gehiago emakumeak

— Etxeko hizkuntza: euskara nagusiki baina erdara daukatenek ere laginean egon behar zuten.

— Ama hizkuntza: nagusiki eskolan edo euskaltegietan euskaldundutako gurasoak izan behar dira; azkenean erdia eta erdia izan zen.

— Euskaltzaleak (euskararekiko jarrera aktiboa) eta ez-euskaltzaleak (euskararekiko jarrera pasiboa) laginean egon behar dira; taldeko partaide kopurua bakoitia bada, erdia baino gehiago euskaltzaleak.

2. Guraso erdaldunak multzo bakarrean sailkatu genituen.

Honako irizpideetan oinarritu ginen taldea betetzeko:

- Erdia baino gehiago emakumeak
- Euskaltzaleak (euskararekiko jarrera aktiboa) eta ez-euskaltzaleak (euskararekiko jarrera pasiboa) laginean egon behar dira.

3. Bikote mistoetako gurasoak ere multzo bakarrean sailkatu genituen.

Irizpideak honakoak izan ziren:

- Erdia baino gehiago emakumeak.
- Erdia baino gehiago erdaldunak.
- Etxeko hizkuntza: erdara eta erdara eta euskara nagusiki dituztenak; eta salbuespen moduan euskara daukaten bikoteren bat sar-tzea baloratu behar da.
- Euskaltzaleak (euskararekiko jarrera aktiboa) eta ez-euskaltzaleak (euskararekiko jarrera pasiboa) laginean egon behar dira.

Horiek guztiak kontuan hartuta osotara 40 bikotek (80 gurasok) osatutako lagina osatu genuen.

4. Guraso etorkinak. Kasu honetan bi irizpide nagusi erabili genituen:

- Elkarrizketatu bat gizonezkoa eta beste bat emakumezkoa.
- Magrebiar bat eta latinoamerikako beste bat izan behar ziren.

b) Taldeen ezaugarri orokorrak

Gurasoen bizilekua:

Gasteizko auzoen banaketa bat eginez gero, ondorengo sailkapena⁵ erabiliko genuke.

- Aldabe: Alde Zaharra, Coronación, eta Ensanche
- Europa: Arriaga-Lakua⁶, Gazalbide, El Pilar, Lovaina, San Martin eta Txagorritxu
- Iparralde: Aranbizkarra eta Zaramaga
- Judimendi: Anglo, Arana, Arantzabela, Desamparados, Judimendi, Salburua, Santa Lucía eta Santiago
- Hegoalde: Adurtza, Ariznabarra, Mendizorrotza, San Cristobal eta Zabalzana
- Lakua: Abetxuko, Ali eta Sansomendi
- Rural: Zona rural Este, Noroeste eta Suroeste

Eztabaida-taldeetan nahiz sakoneko elkarrizketetan parte hartu duten gurasoak non bizi diren jakiteko osatu dugu ondorengo taula, unibertsoaren lagin gisa.

1.Taula. Gurasoen ezaugarriak bizilekuaren arabera

Auzoak	Euskaldunak	Erdaldunak	Mistoak	Etorkinak	GUZTIRA
Aldabe	1	1	1	1	4
Europa	1	1			2
Iparralde	1				1
Judimendi	3	2		1	6
Hegoalde		2	3		5
Lakua	1		1		2
Rural					
GUZTIRA	7	6	5	2	20

Taldez taldeko ezaugarriak

Guraso euskaldunen ezaugarriak

Zazpi gurasok osatutako taldea da, lau emakume eta hiru gizon. Bik euskara izan dute ama-hizkuntza eta gainerakoek gartzelania, horietatik hiruk ikastolan ikasi zuten eta bik euskaltegian. Jatorriari dagokionez, bi jaio dira Gipuzkoan eta gainerakoak Gasteizen, nahiz eta batzuek gurasoren bat Bizkaikoa edo Gipuzkoakoa izan. Guztiek bikoitekide euskalduna dute eta etxean euskaraz egiten dute nagusiki.

2.Taula. Guraso euskaldunen adina, seme-alaba kopurua eta horien ikasteredua

Adina	Euskaldunak		
	Sexua	Seme-alaba kop.	Eredua
40	Emakumea	1	D
39	Emakumea	2	D
40	Gizona	2	D
48	Gizona	2	D
31	Emakumea	1	D
39	Emakumea	1	D
49	Gizona	2	D
Bataz beste	40,86	1,57	

Guraso erdaldunen ezaugarriak

Sei gurasok osatutako taldea da, lau emakume eta bi gizon. Ama bat Madrilen jaiotakoa da, beste ama bat Ubidean (Bizkaia) aita bat Iruñean eta gainerakoak Gasteiz edo Arabako herri erdaldunetan. Denek, maila batean edo bestean, euskara ikasteko ahalegina egin dute noizbait baina inork ez du amaitu euskalduntze prozesua.

3.Taula. Guraso erdaldunen adina, seme-alaba kopurua eta horien ikasteredua

Erdaldunak			
Adina	Sexua	Seme-alaba kop	Eredua
40	Gizona	2	D
47	Emakumea	2	D
41	Gizona	2	B eta D
37	Emakumea	1	B eta D
43	Emakumea	2	D
45	Emakumea	2	D
Bataz beste	42,17	1,83	

Guraso mistoen ezaugarriak

Bost gurasok osatutako taldea da, hiru emakume eta bi gizon. Hiru dira euskaldunak, beste biak erdaldunak; bikote guztietan bikotekide euskaldunak euskaraz egiten die seme-alabei batean izan ezik, non gaztelaniaz gehiagotan egiten dion euskaraz baino. Bikotekideen arteko hizkuntza gaztelania da.

4.Taula. Guraso mistoen adina, seme-alaba kopurua eta horien ikasteredua

Mistoak			
Adina	Sexua	Seme-alaba kop	Eredua
38	Gizona	2	D
36	Emakumea	1	D
43	Emakumea	2	D
45	Gizona	2	D
38	Emakumea	1	B
Bataz beste	40	1,6	

Guraso etorkinen ezaugarriak

1. Lehenengo gurasoa

Gizonezkoa, Kolonbian jaioa 1971n, Gasteizen bizi da 2003az geroztik; bi seme-alaben aita, 5 urteko mutiko bat eta 10 hilabeteko neskato bat. Seme nagusia D eredura doa baina hirueletasunerantz bideratuta. Gaur egun lanean dago. Bere bikotekidea Gasteizkoa da.

2. Bigarren gurasoa

Emakumezkoa, Aljerian jaioa 1972an, Gasteizen bizi da 2004az geroztik; hiru seme-alaben ama, bi nagusiak A eredura doaz eta gaztetxoena, ordea, D eredura. Gaur egun ikasten dabil.

Lehengo ondorio moduan azpimarratu behar dugu guraso guztiek garrantzia ematen diotela transmisioaren gaiari, modu kontzientean buruan ibili dute gaia, dela berbaz aitortuta, dela portaeren bidez erakutsita.

5.Taula. Guraso etorkinen adina, seme-alaba kopurua eta horien ikasteredua

	Etorkinak			
	Adina	Sexua	Seme-alaba kop	Eredua
	42	Emakumea	3	D, A eta A
	43	Gizona	2	D
Bataz beste	42,5		2,5	

4. ONDORIO OROKORRAK TALDEZ TALDE

I

a) Guraso euskaldunen taldeko ondorioak

1. Lehengo ondorio moduan azpimarratu behar dugu guraso guztiek garrantzia ematen diotela transmisioaren gaiari, modu kontzientean buruan ibili dute gaia, dela berbaz aitortuta, dela portae- ren bidez erakutsita.
2. Guraso gehienek euskara etxetik badakarte ere, garrantzia handi-handia ematen diote euskara ama-hizkuntza izateari, baita D ereduan ikasteari.
3. Bi aldagai horiekin batera aisialdia eta euskaraz jarduteko gogo- ari⁷ garrantzia aitortzen diote; era berean, inguruari erabateko era- gina ematen diote, ze Gasteizko egoera soziolinguistiko erdaldu- nak baldintzatu egiten baititu, txarrera baldintzatu ere, euren seme-alaben euskara gaitasuna eta erabiltzeko ohiturak.
4. Berba egiteko gaitasuna garatu duten seme-alaben gurasoek oro- korrean euskarari dagokionez modu negatiboan bizi izan dute haurren eskolaldia, hau da, ama-hizkuntza euskaraz ez duten hau- rrekin elkartzeak ekarri diela gaztelaniarekiko joera handiagoa, eta beraz, euskararekikoa apaldu egin dela. Izan ere, Gasteizko egoera orokorra modu desberdinean sumatzen dute, euskararekiko joera alderantzizkoa dela, alegia.
5. Inguru erdalduak eraginda, erabat sinetsita daude gaztelania arazo barik ikasiko dutela eta ez diela inongo trabarik ekarriko egunen batean kanpoko unibertsitatearen batera joaten badira, bizi- tza osoan euskaraz ikasita ere.
6. Euskara ama-hizkuntza jasotzeak eta D ereduan ikasteak oinarri ematen die hurrei baina kezken bitartez agerian utzi dute bi faktore horiek ez dutela nahikotasunik izaten Gasteiz bezalako hiri batean.
7. Guraso moduan euskararen transmisioa bermatze aldera euren erantzukizuna zentratu behar dela euskarazko sare sozialak era- tzen eta, batez ere, euskara ahal den guztietan egiten.

8. Euren seme-alabek euskaraz egiteko motibazioaz galdetuta, motibazio kulturala⁸ gailendu egiten da, identitateari loturikoa, nahiz eta motibazio sozialetik⁹ ere apur bat jaso. Motibazio instrumentala ez da inondik inora ere agertu.

Guraso erdaldunen taldeko ondorioak

1. Guztiek daukate jarrera positiboa euskararekiko, are gehiago, guztiek momenturen batean eta arrakasta handiago edo txikiagorekin egin dute euskara ikasteko ahalegina. Jarrera proaktiboa izan dute hizkuntzarekiko.
2. Euskara jakitearen arrazoiak itaunduta, motibazio afektiboak eraginda erantzun dute, hau da, nortasun edo identitateari lotutako arrazoiak aipatu dituzte eta, afektibitatearen bigarren zentzu batean bada ere, eurek ez dutena seme-alabei emateko nahia ere agertu dute. Kulturaren ezinbesteko osagai modura ikusten dute.
3. Ikastetxea aukeratzeko denek garrantzi handia eman diote eredu euskalduna izateari baina beste arrazoi batzuk ere nabarmendu dituzte, esaterako, etxetiko distantzia. Izan ere, Gasteizen eskolak aukeratzeko dagoen berezitasunak ikusita denek ezin izan dute aukeratu murgiltze maila berdina euren seme-alabentzat.
4. Eskolen ereduarekin lotuta, honako pertzepzioa barneratu da: seme-alabek euskara ondo ikasiko dutela. Agian ez gaztelaniaren maila berean kasu guztietan baina bai euskara erabiltzea borondatearen baitako faktoretzat hartzeko modukoa izateraino.
5. Eredu euskaldun batera bidali izanak ez die eragin aparteko zalantzarik edo kezkarik; zalantza gehienek arrazoi akademikoe-tan izan dute oinarri. Izan ere, etxeko lanekin laguntzeko ustezko ezintasuna izan da gutxi batzuen ezinegona.
6. "Inbidia" eta "harrotasuna" moduko kontzeptuak aipatu dituzte euren seme-alabei euskara egiten entzuten dieten bakoitzean. Honek indartu egiten du motibazio afektiboaren ideia.
7. Gehiago edo gutxiago euskara ikasi egin dute eta ahal duten neurrian dakiten apur hori erabiltzeko ahalegina egin behar dutela uste dute.

Bikote mistoetako gurasoen taldeko ondorioak

1. Bikote mistoetan kide euskaldunek gehienetan euskaraz egiten diete seme-alabei baina etxeko beste egoeretan gaztelania nagusia da, bai bikotekideen artean bai bikotekide erdaldunen eta euskaldun batzuen senitartekoak tartean daudenean.

***Euskara ama-
hizkuntza
jasotzeak eta D
ereduan ikasteak
oinarri ematen
die haurrei baina
kezken bitartez
agerian utzi dute
bi faktore horiek
ez dutela
nahikotasunik
izaten Gasteiz
bezalako hiri
batean.***

***Euskara
jakitearen
arrazoiak
itaunduta,
motibazio
afektiboak
eraginda
erantzun dute,
hau da, nortasun
edo identitateari
lotutako
arrazoiak aipatu
dituzte.***

**Eskolen
ereduarekin
lotuta, honako
pertzepzioa
barneratu da:
seme-alabek
euskara ondo
ikasiko dutela.
Agian ez
gaztelaniaren
maila berean
kasu guztietan
baina bai
euskara
erabiltzea
borondatearen
baitako
faktoretzat
hartzeko
modukoa
izateraino.**

**Eredu euskaldun
batera bidali
izanak ez die
eragin aparteko
zalantzarik edo
kezkarik;
zalantza
gehienek arrazoi
akademikoetan
izan dute oinarri.**

2. Gaztelaniaren nagusitasuna horren da handia familiatik kanpo inguruneetan ze erabateko garrantzia ematen baitiote ama-hizkuntzari hizkuntzen arteko gaitasuna berdintze aldera, hau da, euskara ama-hizkuntzatat daukatenek errazago eutsiko omen diote gaztelania eta euskararen gaitasunen arteko orekari.

3. Euskararen egoerak berak ingurune hurbil, hedabide, aisialdi eta familian eragiten du euskaraz egitea edo ez; beste era batera esanda, euskaraz nagusitasunez egiteko euskararen presentzia trinkoagoa izan behar da aipatutako esparru guztietan, eta bereziki familian.

4. Familiaren gainerako kideak, euskaldunak ez direnak, berbaldietan integratzerakoan bi jarrera nabarmentzen dira nagusiki: alde batetik, modu kontziente eta *koherentean*¹⁰ jokatzeko dutenek eusten diote euskarari nahiz eta aurrean kide erdaldunak egon; eta bestetik, gainerako kideak berbaldiaz jabetzea lehenesten dutenek gaztelaniaz egiten diete seme-alabei. Era berean, nahiz eta familiaren kide erdaldunek ezer esan ez, zenbait kide euskaldunek “autopresionatu” egiten dute euren burua hizkuntza aldaketa izan dadin.

5. Kide euskaldunek seme-alabei euskaraz egiteak ekartzen du kide erdaldunen errealitatearen zati bat (etxea eta seme-alabekiko harremanak) nolabait euskalduntzea eta horrek eragin du euskararekiko atxikimendu handiagoa motibazioan, gaitasunean eta erabileran, salbuespenak salbuespen eta mailak maila.

6. Taldeko gehienek gaztelania dute ama-hizkuntzatat eta kasu horietan ilusioa, harrotasuna eta horrelako kontzeptuak adierazi dituzte seme-alabek euskaraz aditzen dituztenean. Horrek adierazten du hizkuntzaren transmisioarena modu kontzientean bizi dute-la, nahiz eta modu nabarmenean aipatu ez.

7. Kezkei dagokienez, euskararen gaitasun apalean edo ez-gaitasunean dautza kezka nagusiak; hots, etxeko lanekin ez laguntzea da kezketako bat eta, bestalde, hurrek gainditzea guraso erdaldunen euskara maila da beste bat eta, beraz, horrek dakar momentu bate-tik aurrera gaztelaniaz egin behar izatea.

Guraso etorkinak

Lehenengo gurasoa

1. Euskararekiko harremana ez da oso trinkoa, seme-alabak izan dituenetik areagotu egin den arren.

2. Guztiz beharrezkotzat jotzen du euskara, hizkuntza bat den aldetik aberastasuna da; funtsezkotzat jotzen du tokian tokiko hiz-

kuntza jakitea komunitatearen parte sentitzeko eta inguruan bizi duen errealitatea hobeto ulertzeko.

3. Ez du motibazio instrumentalik sentitu euskara ikasteko, bai, ordea, motibazio kulturala.

4. Etorkina den aldetik zenbaitetan diskriminatuta sentitu da, zentzu horretan euskara jakitea ezinbestekotzat jotzen du komunitate batean integratzeko, are gehiago hizkuntza azalaren kolorearen aurretik jartzen du komunitate baten partaide izaterakoan.

5. Harrotasuna sentitzen du seme-alabek euskaraz egiten dutenean entzutean.

6. Denbora falta aipatu du euskara ez ikasteko arrazoi modura.

Bigarren gurasoa

1. Euskararekiko lehenengo harremana eskolako andereñoarekin izan zen, ordura arte ez zuen harremanik izan.

2. Oso kezkatuta agertzen da emaitza akademikoekin eta ildo horretatik garrantzi handia ematen dio euskarari; era berean, euskaraz jakiteari motibazio instrumentala lotzen dio, izan ere, motibazio kultural-afektiboa ere agertzen da ikasteko beharren artean.

3. Seme-alabek euskaraz entzutean poztasuna, inbidia eta gogoko izatea aitortzen du.

4. Eskola aukeratzeko lehenengo arrazoia etxetik hurbiltasuna izan zen, izan ere, seme-alabak adinean gora egin ahala eta bizitzan aldaketak gertatu ahala, beste arrazoi batzuk nabarmendu ziren, adibidez, lagun taldeari eta hasitako bide akademikoari eustea.

5. Euskara zaila dela uste du eta bere ustez ezin izango dio lagundu bere seme txikiari etxeko lanekin. Era berean, uste du bere seme-alaben euskara maila oso altua dela uste du nahiz eta euretako bi A ereduan ikasi. Honek garamatza pentsatzera uste duena baino txikiagoa dela seme-alaben euskara maila.

6. Oso garrantzitsutzat jotzen du eskola orduz kanpoko ekintzak euskaraz izatea, bere seme-alabek eskuratu duten euskara mailak horrela adierazten baitio.

5. TALDE BAKOITZAREN BALIZKO LELOEN AUKERAKETA

I

Dinamikak egin eta gero, balizko lelo batzuk erakutsi genizkien transmisioaren inguruko mezuak zentratzen laguntzeko. Hori dela eta, talde bakoitzari bost lelo aurkeztu egin zitzaizkien zegokien hizkuntzan; bikotekide mistoen gurasoen taldekoei, ordea, gaztelaniazkoak eta euskarazkoak. Kasu honetan parte-hartzailearen ama-hizkuntzaren

***Ez du motibazio
instrumentalik
sentitu euskara
ikasteko, bai,
ordea, motibazio
kulturala.***

***Seme-alabek
euskaraz
entzutean
poztasuna,
inbidia eta
gogoko izatea
aitortzen du.***

Oso garrantzitsutzat jotzen du eskola orduz kanpoko ekintzak euskaraz izatea, bere seme-alabek eskuratu duten euskara mailak horrela adierazten baitio.

arabera jokatu dugun arren, ahalegin berezitzoa ere eskatu diegu, euren bikotekideen buruan jar zitezen esan eta bere hizkuntzaren araberako lelo bat aukeratzea.

Honakoak izan ziren aurkeztutako balizko leloak:

Euskaraz:

1. Lekukoa pasa
2. Eman giltza, aitatxo/amatxo
3. Hazia erein
4. Zer ikusi, hura nahi
5. Beti gogoratuko du

Gaztelaniaz:

1. ¿Sientes que te falta algo? Si eres bilingüe mejoras tu vida y la de los demás personas
2. Soy bilingüe, soy rico/soy rica
3. ¡Háblale, escúchale!
4. Un esfuerzo, una palabra, una sonrisa
5. Euskera? La mejor red social

Ondorengo tauletan ikus daitezke bildutako emaitzak:

6. Taula. Guraso euskaldunen leloen aukeraketa

	Euskaldunak							Batez bestekoa
Lekukoa pasa	3	2	3		3	3	2	2,29
Eman giltza, aitatxo/amatxo		1	2	3		2		1,14
Hazia erein		3	1	2	1		1	1,14
Zer ikusi, hura nahi	2			1	2	1	3	1,29
Beti gogoratuko du								0,00

7. Taula. Guraso erdaldunen leloen aukeraketa

	Erdaldunak						Batez bestekoa
¿Sientes que te falta algo? Si eres bilingüe mejoras tu vida y la de las demás personas				3			0,5
Soy bilingüe, soy rico/soy rica	3		2	2	3	3	2,2
¡Háblale, escúchale!	2	3		1	1	2	1,5
Un esfuerzo, una palabra, una sonrisa	1	1	3		2	1	1,3
Euskera? La mejor red social		2	1				0,5

8. Taula. Bikote misttoetako gurasoen taldeko leloen aukeraketa

Lekukoa pasa	Mistoak					Batez bestekoa
Eman giltza, aitaxo/amatxo	1				3	0,8
Hazia erein	2	3	3	2		2
Zer ikusi, hura nahi			2	1		0,6
Beti gogoratuko du	3		1	3		1,4
						Batez bestekoa
¿Sientes que te falta algo? Si eres bilingüe mejoras tu vida y la de las demás personas					1	0,2
Soy bilingüe, soy rico/soy rica		2			3	1
¡Háblale, escúchale!						
Un esfuerzo, una palabra, una sonrisa	3	1	1	3	2	2
Euskera? La mejor red social		3				0,6

9. Taula. Guraso etorkinen taldeko leloen aukeraketa

Lekukoa pasa	Etorkinak		Batez bestekoa
¿Sientes que te falta algo? Si eres bilingüe mejoras tu vida y la de las demás personas			0,0
Soy bilingüe, soy rico/soy rica	2	1	1,5
¡Háblale, escúchale!	1	2	1,5
Un esfuerzo, una palabra, una sonrisa	3	3	3,0
Euskera? La mejor red social			0,0

10. Taula Puntuazio orokorrak

Lekukoa pasa	Euskaraz												Batez bestekoa	
	3	2	3		3	3	2							
Eman giltza, aitaxo/amatxo		1	2	3		2		1					3	
Hazia erein		3	1	2	1		1	2	3	3	2			
Zer ikusi, hura nahi	2			1	2	1	3			2	1			
Beti gogoratuko du								3		1	3			
														Batez bestekoa
¿Sientes que te falta algo? Si eres bilingüe mejoras tu vida y la de las demás personas				3									1	0,31
Soy bilingüe, soy rico/soy rica	3		2	2	3	3		2		3	2	1		1,62
¡Háblale, escúchale!	2	3		1	1	2						1	2	0,92
Un esfuerzo, una palabra, una sonrisa	1	1	3		2	1	3	1	1	3	2	3	3	1,85
Euskera? La mejor red social		2	1					3						0,46

Ohar gisa deigarri egin zaigu guraso euskaldunen multzoak “Lekukoa pasa” leloari egokiena iritzi izana eta bikotekide misttoek osatutako multzoak, ordea, punturik eman ez izana.

Berebiziko garrantzia hartze du gurasoak eredu linguistiko aktiboak izateak, euskarazko aisialdia ahalbidetzeak edota etxean haurrak adinean gora egin ahala euskara erabiltzen jarraitzeak.

Zenbait kasutan eskolaldia atzerapen moduan bizi izan dute euskararen erabilerari dagokionez.

Hizkuntza galera edo ordezkapena gertatzen omen da, euskaraz nagusiki egiten duen haurra eskolara bidaltzen dute baina etxera sartzen den haurrak, eskolatik pasatu ondoren, gaztelaniaz dihardu barra-barra.

6. ONDORIO NAGUSIAK

I Taldez taldeko ondorioetan dinamiketarik eratorritako informazioaren deskribatze eta sailkatze bat egin dugun arren, atal honetan egin nahiko genukeena bestelakoa da, horiexek oinarritzat hartuta etorkizunean bultzatu beharreko ildo batzuk proposatzera heldu gurako genuke, betiere guretik eta gurasoek emandakotik egingo dugula argi edukita.

Horiek horrela, xede-talde bakoitzarentzat ildo berezituak ikus ditzakegu. Alta, guraso euskaldunek garrantzia ematen diote euskararen transmisioari, izan ere, euskara ama-hizkuntza izatea eta eredu euskaldunean matrikulatzea ez dela nahiko deritzote. Inguruaren eragina erabatekoa dela, Gasteizko egoera erdaldunak “txarrera” baldintzatu egiten baitu. Etsipena agertu izan da ingurune erdaldunaren nagusitasunaren aurrean. Gurasoek euren txikian ezin dute aldatu Gasteizko ingurunearen egoera, erronka handiegia da, izan ere, euren esku dagoena egiterik badaukate? Zer da, bada, euren esku dagoena? Eurek bere inguruan “ingurune erdaldunak” duen eragina apaltzeko, eta zenbait kasutan, iraultzeko gaitasuna dute? Baiezkoan gaude. Mezua hortik bideratu beharko genukeela uste dugu, egoera txikiak aldatuta egoera handia aldatuko da. Ildo horretatik, berebiziko garrantzia hartzen du gurasoak eredu linguistiko aktiboak izateak, euskarazko aisialdia ahalbidetzeak edota etxean haurrak adinean gora egin ahala euskara erabiltzen jarraitzeak.

Era berean, haurren sozializazioa hainbat urtetako prozesua da, ez da gertatzen soil-soilik bizitzaren lehenengo urteetan, ezta familian eta eskolan soil-soilik ere. Beraz, gurasoek erantzukizuna dute haurren lehenengo urteetan hasitako bideari (euskara ama-hizkuntza eta eredu euskaldunean matrikulatu) jarraipena ematen eta ahalik eta ingurunerik euskaldunena seme-alabei ahalbidetzen, espazioz eta denboraz.

Bestalde, zenbait kasutan eskolaldia atzerapen moduan bizi izan dute euskararen erabilerari dagokionez. Hizkuntza galera edo ordezkapena gertatzen omen da, euskaraz nagusiki egiten duen haurra eskolara bidaltzen dute baina etxera sartzen den haurrak, eskolatik pasatu ondoren, gaztelaniaz dihardu barra-barra. Ez dago irabazirik? Ezin dugu positibizatu mezu hori? Errealitatea horrela interpretatzeak “aktibatu” edo “etsitu” egiten ditu gurasoak? Gai honen inguruan gogoeta egin beharko genuke.

Motibazio kulturala, identitateari lotua, oso barneratuta daukate eta eraginkorra dela ikusten da; motivazio mota hori elikatzen jarraitu

beharra dagoela ikusten dugu, beste motibazio motak baztertu gabe, jakina.

Guraso erdaldunei dagokienez, desio bat azaleratzen dute, euskara jakin nahiko lukete, ahalegina egin dute modu zuzenean (asko eta asko ikasten saiatu dira) edo zeharka (haurrak eredu euskaldunera bidalita), zenbait kasutan beldur batzuei (etxeko lanekin ezin lagunduaren ustea) aurre eginda. Lan hau aitortu, errekonozitu eta eskertu beharko litzatekeela uste dugu; izan ere, onartzeak ez luke ekarri beharko konformatzea. Guraso erdaldunek asko egin dute baina asko egin dezakete oraindik ere.

Idea hori sendotzeko, baliogabetu beharko litzateke eskolak berak bakarrik haurra betiko euskalduntzeko nahikotasuna daukanaren ustea. Eredu euskaldunean matrikulatuta ere elikatzen beharko lukete haurren sozializazioan eragiten duten beste eremu batzuk ere.

Aurreko bi ideien azpian beste ideia bat agertzen zaigu, prozesuaren ideia. Gurasoak haurrak jaiotzean eta haurraren lehenengo urteotan oso motibatuta daude euskararekiko, euren seme-alabentzako euskara nahi dute, duten apurra eman egiten diete euskara mailak uzten dien arte. Gertatzen dena da prozesu hori oso laburra dela, haurrek hazi ahala baliabide linguistiko gehiago “eskatzen” diete eta berehala ezintasuna agertzen zaie. Gurasoek euskararekiko duten “lilura” hori luzatu behar da, arinago hasita eta ahal den neurrira arte luzatuta. Guraso izan aurretik motibazio eta sentsibilizazio lana areagotu beharko litzateke eta gurasoen euskara-gaitasuna heltzen ez den eremuetara heldu beharko litzateke familatik kanpoko eremuen bitartez. Estrategia hau erabiltzeko gurasoek euskararekiko duten jarrera positiboan eta motibazio kulturean oinarritu gaitezke.

Bikote mistoen kasuan, beste helduleku nagusi bat agertzen zaigu begi aurrean. Kide erdaldunaren errealitatea nolabait “euskalduntzen” da eta horrek handitu egiten du kide horren motibazioa, gaitasuna (maila baxuagoan) eta ondorioz erabilera. Helduleku horri oratu beharko genioke transmisioan aurrerapauso praktikoak emate aldera. Kide euskaldunari ohartarazi egin behar zaio euskaraz erabiltzen duenean kide erdaldunengan sentsazio positiboak sortzen dituela, eta beraz, zenbat eta gehiagotan luzatu egoera, kide erdaldunentzako sentimendu positiboagoak, deserosotasunak deserosotasun. Zelan? Euskara erabiltzen ahal duten guztietan. Hau garrantzitsua da, zeren eta denborak aurrera egiten duen heinean gaztelania nagusitu egiten baita.

Kide euskaldunari ohartarazi egin behar zaio euskaraz erabiltzen duenean kide erdaldunengan sentsazio positiboak sortzen dituela, eta beraz, zenbat eta gehiagotan luzatu egoera, kide erdaldunentzako sentimendu positiboagoak.

**Guraso etorkinei
dagokienez,
euren kezkarik
handienetako bat
bizi diren
komunitatean
integratzea dela
iritzita,
integrazioa
osotasunean
lortzeko euskaraz
jakitea
lagungarri ez
ezik beharrezkoa
ere badela
azpimarratu
beharko genuke.**

Gainera horrela jokatzekak ekar lezake guraso euskalduna erreferente linguistiko egokia izatea seme-alabentzat, “ahal dudanarekin euskaraz egiten dut ahal den guztietan” eskema erreproduzitu egingo bailitzateke.

Amaitzeko, guraso etorkinei dagokienez, euren kezkarik handienetako bat bizi diren komunitatean integratzea dela iritzita, integrazioa osotasunean lortzeko euskaraz jakitea lagungarri ez ezik beharrezkoa ere badela azpimarratu beharko genuke. Horrez gain, beren sorterritik beste herrialde batera joanda, batzuek beste hizkuntza bat ikasi beharra bizi izan dute, modu positiboan bizi ere, zeren hizkuntza aniztasuna aberasgarri moduan sentitu dute. Eurek beharrak eraginda egin zuten baina seme-alabentzako askoz naturalagoa izan liteke prozesu hori. Ideia hori indartsua izan daiteke. ●

OHARRAK

1. Xede-taldea dira 1 eta 6 urte bitarteko seme-alabak eredu euskaldunetan matrikulatuta dituzten gurasoak.
2. Ruiz de Olabuénaga, J.I., “Metodología de la investigación cualitativa”, Universidad de Deusto, 1999, 1. Kap.
3. Ruiz de Olabuénaga, J.I., *Ibidem*.
4. Honako irizpideak erabili ditugu, besteak beste: bizilekua, euskara-gaitasuna, ama-hizkuntza, generoa eta jaioterrria. Horri gehitu behar diogu irizpide guztiak beteko dituzten gurasoak topatzeko zailtasuna, beraz, batzuetan guraso batek beste bat topatzea ahalbidetu egin digu. Esan barik doa ezinbesteko baldintza modura jarri genuela guraso guztiak Gasteizen bizi behar dutela azken hiru urtetik hona.
5. Sailkapenerako erabilitako datuak Vitoria-Gasteizko Udalaren “Anuario Estadístico 2013” txostenetik ateratakoak dira.
6. Urdinez agertzen diren auzoak lehentasunezkoztat jo genituen, beraz, euren eragina laginean nabarmenago islatu genuen.
7. Gogoaz ari direnean euskara erabiltzeko jarrera proaktiboaz ari dira, ahal diren egoera guztietan erabiltzeaz, alegia.
8. Honako motibazio mota hauetaz ari gara: instrumentala, soziala eta kulturala.
9. Kasu honetan “gertuko errealitatea ezagutzeko, begiratzeko modu baten” ideia azpimarratu nahi dugu.
10. Koherentetzat jo dugu hemen euskararen aldeko jarrera aktiboa.

BIBLIOGRAFIA

- Kasares, Paula (2012). “Euskaldun hazi Iruñean. Inguru erdaldun(du)etako familien hizkuntza elkarrekintzak eta komunitate aukerak”. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 85, 143-156.
- Kasares, Paula (2012). “Euskararen belaunez belauneko jarraipena hizkuntza sozializazioaren paradigmantik”. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 82, 15-46.
- Ruiz de Olabuénaga, J.I. (1999). *Metodología de la investigación cualitativa*, Universidad de Deusto. Bilbo.

Soziolinguistika Klusterra (2012). *Arrue Proiektua. Ebaluazio Diagnostikoa 2011: ikasleen hizkuntza erabileraren datuak. LMH4ko eta DBH2ko ikasleak (EAE). Eraitza nagusiak*

Vitoria-Gasteizko Udala (2013). *Anuario Estadístico 2013*

Eman giltza: http://www.emangiltza.com/giltzak/ideiak_proposamenak http://www.emangiltza.com/aholkularitza/ohiko_zalantzak